

INFORMAZIO-OHARRA

Osasun Sailak hainbat pertsona identifikatu ditu, azken egunetan PCR positiboa izan dutenak, eta haien artean **Getariako Kale Nagusiko Politena tabernarekin** zerikusia izan dezakeen lotura posible bat besterik ez dutenak.

Horregatik, Zaintza eta Kontrol Sareak, prebentzio gisa, **uztailaren 9tik (osteguna) uztailaren 12ra bitartean** ostalaritza-lokal egon diren guztiekin jarri nahi du harremanetan.

Guztiei eskatzen zaie dagokien osasun-zentroarekin harremanetan jartzeko, baldin eta Urola Kosta eskualdekoak badira:

- **Getariako osasun-zentroa (tel.: 943 14 06 53)**
- **Zumaiako osasun-zentroa (tel.: 943 00 64 90)**
- **Zarauzko osasun-zentroa (tel.: 943 00 79 99)**

Bertan PCR proba bat egiteko aurretiko hitzordua emango zaie **bihar goizeko 09:00etatik aurrera**. Proba horiek 09:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 17:00etara bitartean egingo dira, **Getariako Sahatsaga kaleko udal kiroldegiaren barrualdean ezarriko diren karpetan. Uztailaren 9tik (osteguna) uztailaren 12ra (igandea) bitartean** Politena tabernan egon diren beste herri batzuetako pertsonak **Osasun Aholkuaren telefonora** deitu behar dute (**900 20 30 50**), edo beren osasun-zentroarekin harremanetan jarri.

Era berean, Osasun Sailak herritarrei gogorarazi nahi die ezagunak diren prebentzio-neurriak hartu behar dituztela, eta, COVIDarekin bateragarriak diren sintomak izanez gero (**sukarra, eztula edo arnasa hartzeko zailtasuna**), etxean isolatu eta beren osasun-zentrora deitu behar dutela. Halaber, lasaitasunezko mezu bat zabaldu nahi du, eta azpimarratu nahi du **horrelako neurriak prebentziozkoak bakarrik** direla, transmisio komunitario bat ahalik eta lasterren detektatu eta kutsatze gehiago saihesteko helburuarekin hartzen direnak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailak 14